

GRADU AMAIERAKO LANA

**ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOKO GRADUA
2019-2020 IKASTURTEA**

AMAZIGERAREN HISTORIA ETA ESTANDARIZAZIO PROZESUAREN ANALISIA.



LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

JULENE CONDE AGUIRRE

Tutorea: VICTOR AMADO CASTRO

AURKIBIDEA

| | |
|---|-----------|
| SARRERA..... | 2 |
| METODOLOGIA..... | 3 |
| HELBURUAK | 3 |
| EDUKIAK..... | 4 |
| 1. AMAZIGERA KOKATZEN | 5 |
| 1.1 EZAUGARRI ETNIKOAK | 5 |
| 1.2 EZAUGARRI LINGUISTIKOAK | 5 |
| 2. GARAPENA MENDEETAN ZEHAR | 10 |
| 2.1 PROTEKTORATU AURRETIK | 10 |
| 2.2 PROTEKTORATUAN ZEHAR..... | 13 |
| 2.3 PROTEKTORATU OSTEAN | 14 |
| 3. INSTITUZIONALIZAZIORAZKO BIDEAN | 16 |
| 3.1 KONTEXTU POLITIKOA | 16 |
| 3.2 GERTAKARIAK KRONOLOGIKOKI..... | 17 |
| 4. ESTANDARIZAZIOA..... | 20 |
| 4.1 HIZKUNTZA PLANGINTZA..... | 21 |
| 4.2 IRAKASKUNTZA ETA ESTANDARIZAZIOA | 25 |
| 4.3 KOMUNIKABIDEAK, INTERNETA ETA ESANDARIZAZIOA | 28 |
| ONDORIOAK..... | 29 |
| BIBLIOGRAFIA | 31 |
| ERANSKINAK | 34 |

IRUDIEN AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| Irudia 1:Lurraldekako hizkuntz banaketa Marokon | 7 |
| Irudia 2: Amazigh hizkuntza barietate desberdinen portzentaia estatu mailan..... | 7 |
| Irudia 3:Amazigh hizkuntz barietate desberdinen portzentaia eskualde mailan. | 7 |
| Irudia 4:Amazigh hizkuntz barietate desberdinak afrika iparraldean..... | 34 |
| Irudia 5:Neo-tifinagh alfabetoa..... | 34 |

SARRERA

Marokon hamahiru milioi pertsona inguruk hitz egiten dute, batez ere ahozko komunikaziorako erabiltzen diren amazigh hizkuntz barietate desberdinetako bat. Arabiarren konkista aurretik, egun Maroko den eremu osoan erabiltzen ziren baina historian zehar, arrazoi politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalengatik hainbat esparrutan arabierari men egin behar izan dio (Boukous, 2009). Amazigh komunitateak bazterketa instituzionala jasan du, neurri handi batean bere egoera prekarizatu eta hiztun kopurua murriztea eragin duena, hizkuntza eta kultura asimilazioaren ondorioz. Asimilazio prozesua induzitutakoa izan da gehienetan eta arabizazioa terminoarekin izendatu ohi da. Protektoratu aurretik hiru arabizazio fase bereizi daitezke. Protektoratuak ere (gehienbat frantsesak) eragina izango du, 1930-eko *dahir*¹-ak *Imazighen*-ei beste sistema juridiko bat ezarri eta *divide et impera* metodoa erabiliz, behin independentzia lortuta beste arabizazio prozesu bati bidea emanaz.

Egun, hizkuntza eta kultura arabiarrekin kontaktua duten urbanizazio prozesuan gertatzen da asimilazioa. UNESCO-k kontaktu linguistikoa hizkuntza indigenentzat hilgarria dela erakutsi eta globalizazioak amazigh kulturaren tradizioa mehatxatzen dutela ez ezik, amazighera desagertzeko arriskuan dagoela ere adierazi zuen (Boukous, 2011). Hala ere, amazigh mugimendu kulturalak, 60. hamarkadan hasi eta bereziki 90.enean indarra hartu zuen hizkuntzaren ofizialtasuna eta sozio-politikan lekua eskatuz (Ennaji 2014). Kanpo eta barne presioak eraginda, erantzuna jaso zuten eta 1994. urtetik aurrera hasi ziren hizkuntza autoktonoa lehen hezkuntzan irakasten. Hori ez ezik, amazigeraren estandarizazio-proiektua eta *Tifinagh* alfabetoaren kodifikazioaren ardura izan duen IRCAM edo Institut Royal de la Culture Amazighe au Maroc gobernu-erakundea sortu zen 2001an. IRCAM- ez ezik beste hainbat erakunde proaktiboki ari dira lanean amazigh herriaren hizkuntza eta kultura sustatzeko.

2011. urtean hizkuntza ofizial bihurtu zen, amazigeraz telebistako katea dago ikusgai eta amazigera sustatzeko mugimendua gero eta jendetsuagoa da. Beraz, hizkuntza berpizteko aurrerapausoak eman direla argi dago baina nahikoa izango ote da Marokoko egoera soziolingustikoa kontuan hartuta amazigeraren biziraupena bermatzeko?

¹ Dahir-a Marokoko Sultanaren erabaki da, askotan judiziala edo legegilea, dekretu baten baliokidea dena.

METODOLOGIA

Berrikuspen bibliografikoa

Lan hau burutzeko Berrikuspen bibliografikoa deritzon teknika erabili da; gaiaren inguruko informazio baliagarria jaso eta honen bitartez ikerketa burutu ahal izateko. Berrikuspen bibliografikoa ikerketa-proiektu ororen funtsezko etapa bat da, eta oso zabala izan daitekeen dokumentu multzoan interes-eremuko informaziorik garrantzitsuena bilatzen dela bermatu behar du (Gomez, et al. 2014). Horretarako bilatzaile akademikoak erabili dira, hala nola Dialnet, Google Scholar, Academia.edu... ikerketa honen kasuan erabilitako dokumentuak, oro har, bigarren mailako informazio iturriak izanik: tesi doktoralak, aldizkari zientifikoetako artikulak, liburuetako kapituluak...

Behin iturri garrantzitsuenak sailkatuta, hainbat esparru eta garai desberdinetako informazioa jaso behar izan denez, atal bakoitzerako erabilgarriak ziren dokumentuak multzokatu eta antolatu dira, idazterako orduan egin beharreko lana errazte aldera.

Urteetan zehar amazigh komunitatea kolonizatua izan da eta orain dela urte gutxi arte hizkuntza kodifikatu gabe egon da. Eta honek, informazio gehiena kolonizatzaileen hizkuntzan eta beraz, sarritan hauen ikuspuntutik idatzia egotea eragin du. Hori kontuan hartuta informazio ahalik eta neutral eta eguneratuena erabili da.

Azkenik aipatu beharra dago, dokumentuak digitalizatuta egoteari esker liburutegietan aurkitzen ez diren iturri nagusietara jo ahal izan dela lan honen xede den irakurketa eta interpretazio bibliografiko zehatza egin ahal izateko.

HELBURUAK

Helburuek ikerketaren oinarriak eta norabidea ezartzen laguntzen dute, ikerketa honetan zehar jarraitu beharreko prozesua eta hartu beharreko erabakietan ere gida bihurtuz. Hurrengo lerroetan, ikerketa honetarako formulatu diren helburuak azaltzen dira. Helburu nagusia amazigerak historian zehar izan duen ibilbidea aztertu eta estandarizazio prozesuan emandako aurrera pausuak zein oraindik emateke daudenak identifikatzea da.

Horretarako historian zehar eman diren gertakariak aztertzea ezinbestekoa da, egungo egoera ulertzen laguntzen baitute.

Helburu zehatzagoak berriz, egungo amazigeraren ezaugarriak eta bizi duen egoera soziolinguistikoa definitzea; amazigeraren hiztun galeraren arrazioak identifikatzea; amazigh komunitatearen berpizkundera eta auzia instituzionalizatzeko prozesua deskribatzea; estandarizazio prozesuan hartutako erabakiak ezagutzea; eta hizkuntzaren normalizazioa ziurtatzeko ezinbestekoak hezkuntza eta komunikabideetan amazigerak duen presentzia aztertzea dira.

Izendapena

Afrika iparraldeko herri autoktonoek bereber izendapena jaso dute urte askoan; izendapen honen jatorria, hizkuntza greko-latinetako barbaroi-barbarus, (modu ulertezinean hitz egiten duen jendea) adieretan jatorria duela uste da. Hori dela eta, amazigh komunitateak baztertu egiten du, oro har, bereber terminoa, izen etniko identifikatzaile gisa. Horrez gain, bereber hitza mespretxuzkotzat hartzen denez, lan honetan amazigh terminoa aukeratu da, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko beste egile batzuek erabiltzen duten forma delako (adibidez: Boukous 2005,) eta era berean, herri autoktonoek beraien burua izendatzeko dituzten terminoak errespetatzen dituen forma delako (**Amazigh** norbanakoarentzat, **Imazighen** pluralean, **Amazigh komunitatea**, **Amazigh hizkuntz barietateak...**). Amazigh terminoak². «Gizon askea» esan nahi du, eta eremu nahiko zabal batean erabili izan ohi da. Horrez gain 2001. urteaz geroztik amazigh terminoa da bereber ordean Marokoko testu ofizialetan erabiltzen den adiera (dahir, dekretu, etabarretan) (Abouzaid, 2011).

Amazigh adieraren femeninoa, tamazight da eta bi esanahi posible ditu: Batetik, amazigh hizkuntz barietateetatik abiatuta IRCAM-ek estandarizatutako hizkuntza Tamazight izendatu du. Bestetik, Maroko erdialdeko hizkuntz barietateak ere Tamazight izena jasotzen du. Edozein nahasmen saihesteko, Marokon, orain, «Amazigh+(e)» hitza erabiltzea gomendatzen da, hizkuntza estandarrari erreferentzia egiteko, eta «Tamazight+(e)» hitza, berriz Maroko erdialdeko eskualdeko barietatea izendatzeko (Abouzaid 2011, 41). Beraz lan honetan, amazigera terminoa erabiliko da argiagoa izateaz gain, jada euskaraz erabili izan delako (ETC). Hala ere, literatura zientifikoan, Tamazight maiz erabiltzen da estandarizatutako hizkuntza aipatzean.

² Amazigh hitzaren etimologia eta erabileraz gehiago: S.Chaker, 1986 *Amaziy (le/un Berbère)*, Encyclopédie berbère. Azken kontsulta 2020ko abuztuak 28an <https://journals.openedition.org/encyclopedieberbere/2465>

1. AMAZIGERA KOKATZEN

Amazigerak egun bizi duen egoera soziolinguistikoa ulertzeko oso baliagarria da hainbat faktore eta ezaugarri argitzea. Hori horrela izanik, ezaugarri etniko eta linguistikoak aztertuko dira hurrengo lerroetan.

1.1 Ezaugarri etnikoak

Imazighen-ak Afrikako iparraldera noiz iritsi ziren jakin ez arren, eskualde honetan jarraitzen duten biztanlerik antzinakoenak dira. Hauei buruzko erreferentziak K. a. 3000 ingurukoak dira, antzinako egiptoar, greziar eta erromatar iturrietan sarri agertzen dira eta. (Encarta entziklopedia). Nahiz eta hainbat autorek Magreb-eko pizkunde politiko-kulturala K.O. 647. urtean kokatu, Ennajik amazigh komunitatearen jardueraren zantzuak K.A 215. urtera arte badirela azpimarratzen du (Ennaji 2005).

Beraz, Imazighenak Afrikako iparraldeko kostaldean bizi izan ziren mende askotan zehar, Egiptotik Ozeano Atlantikoraino³. Marokoko egoerari dagokionez, Arabiar konkistaz geroztik arabizazio prozesuan murgildu zen eta nahiz eta askok arabiarrek direla pentsatu, Arabiarrek Marokoko biztanleriaren %10-15 bakarrik osatzen dute; arabizatuak izan diren Imazighenak, %40tik %45era; eta beste %40tik %45era bitartekoak amazigh komunitateko kide dira (Pellat,, et al. 2020). Kaplanek idatzitako «In Morocco a berber face hides beneath an Arab mask » esaldiak oso ondo islatzen du errealitatea (Kaplan, 1982).

1.2 Ezaugarri linguistikoak

Etnikoki presentzia zabala izan arren, linguistikoki erabilera mugatuagoa du, hein handi batean instituzionalki baztertua izan delako. Arabizazioaz gain, kolonizazioa eta globalizazioak eragindako egoera eleanitza dela eta hizkuntza bat baino gehiagorekin du lehia (Sadiqi 2003). Ahmed Boukousek oso ongi azaltzen ditu Marokoko egoera soziolinguistikoan ematen diren botere harremanak.

Marokoko hizkuntzak bi kategoriatan sailkatu ditu. Lehen multzoan arabiera marokoarra (Darija) eta amazigh hizkuntz barietateak, kapital sozial eta sinboliko ahula osatzen dutenak. Bigarren kategorian, berriz, frantsesa, arabiera klasikoa eta neurri

³ Oraindik Afrika iparraldean dirauten amazigh komunitateen multzoak Tamazgha izena jasotzen dute. (Eranskina 1)

txikiagoan ingelesa, horiek baitira erakundeetako hizkuntzak eta kapital sozial handia dutenak⁴.

Hizkuntzen arteko lehia eta botere-borroka kategoria bereko hizkuntzen artean eta kategorien artean gertatzen da (Boukous, 2009). Hau da, egunerokotasunean erabiltzen diren amazigh hizkuntz barietateek kategoria bereko marokoar gehienen ama hizkuntza den Darijarekin ez ezik, batez ere bere gainetik dauden frantsesa eta arabierarekin egin behar dute borrokan.

Arabiera estandarra erlijioaren, gobernuaren eta hezkuntzaren hizkuntza da; horrez gain tradizioaren pisua du, Jainkoaren hizkuntza izateaz gain, hizkuntza bateratzaile gisa jokatzeko arabiarren eta musulmanaren kasuan (Sadiqi 2006). Frantsesak duen estatus entzutetsua eta hedapena berriz, mendebalderako atea izateaz gain, eremu zientifiko eta teknikoetan lan aukera zabalagoa eskaintzen duelako da; izan ere, oro har, biztanleria heziarekin lotzen da (Ennaji 1991).

Amazigh hizkuntz barietateak erabiltzen diren esparruak nahiko urriak dira eta beraiek ere kontziente dira egoeraz «in his heart, the Berber knows that God speaks Arabic and modernity speaks French» (Maddy-Weitzman 2011;7) batez ere landa-eremuetan eta familia artean erabiltzen baitira⁵. Esparru pribatura mugatu nahi izan den arren (Ennaji 2014), hedabideetan ere borrokatutako lekua lortu du, bereziki irratian baina baita telebistan ere eta hainbat erakundek egindako lanari esker 2011. urtean ofizialtasuna aitortu zitzaion.

1.2.1 Egungo barietate desberdinak.


Marokon, hiru eremu geolektal nagusi bereiz daitezke Tarifit, Tamazight eta Tashelhit deiturikoak. Amazigeraren barietateak, nagusiki, landa, mendi edo basamortu eskualdeetan erabiltzen dira; hirietan ere gero eta gehiago erabiltzen dira, landa exodoaren, amazigh eskualdeen urbanizazioaren eta kanpo migrazioaren ondorioz (Boukous, 2011). Ikus1. Irudia. Nahiz eta iritzi eta datu desberdinak egon badauden, amazigh hiztun guztien populazioa kontuan hartuz gero, guztizkoaren % 30 inguru direla

⁴ Espainiarra, ez da inoiz erabili Marokoko administrazioan, eta erabilera mugatua izan du hezkuntza-sisteman. Espainiar protektoratu izandako guneeetan erabilera du, urria bada ere (kanpotarrekin komunikatzeko gehien bat), baina orokorrean ingelesak gaztelania ordeztu du ekonomian eta hezkuntzan. (Sadiqi 2006)

⁵ Landa-eremu batzuetan balio zentrala duen arren, hiriguneetan presentzia ahula du (Boukous 2005).

ondorioztatu dezakegu Haut Commissariat au Plan-ek (HCP) 2007an argitaraturiko datuei erreparaturaz gero. Ikus 2. Irudia

Irudia 1: Lurrealdeko hizkuntz banaketa Marokon



Iturria (Boukous, 2011; 28)

Irudia 2: Amazigh hizkuntza barietate desberdinen portzentaia estatu mailan.

| Variété amazighe | % de la population nationale |
|---------------------------------|------------------------------|
| Tachelhite | 14,6% |
| Tamazighte | 8,8% |
| Tarifite | 4,8% |
| Total des trois variétés | 28,2% |

Iturria: (HCP 2007) Haut comisariat au Plan <https://www.hcp.ma/>

Hori bai, amazigh barietateetako bat erabiltzen den eremuetan, proportzionalki eskualde horietako hiztunen portzentaia handiagoa da. Kasu batzuetan biztanlegoaren erdia baino gehiago izanik, duen presentziaren adierazgarri da.

Irudia 3: Amazigh hizkuntz barietate desberdinen portzentaia eskualde mailan.



Iturria: (Abouzaid, 2011; 45)

Tarifit-a

Tarifit-a hitz egiten den eskualdeak, Mediterraneoak inguratzen duen eremu menditsua bat hartzen du, Alhuceimatik Nadoraino (eskualdeko bi hirigune nagusiak) , eta Tazako korridoretik (mendi begiratu) iparraldera eta hegoaldera hedatzen dena; Eskualde hau bizi-baldintza gogorreatatik eta gobernu zentralak ekonomikoki eta sozialki abandonatu izanagatik da ezaguna. Mohamed Lagaoutek honela deskribatzen du Tarifit barietatea «confiné dans un espace que tout, la géographie et l’histoire, les hommes et leurs traditions, vouait à l’isolement et l’hermétisme les plus déconcertants» (Laghaout, 1995:15). Rifetik kanpo, Tanger hirian daude Tarifit hiztun gehien, lehen aipatu bezala azken hamarkadetan gora egin duen nekazal exodoa dela eta.

Tamazight-a

Tamazight barietatea, hiru geolektoetatik erdian kokatzen da eta Erdialdeko Atlas eta Goi Atlasaren zati bat barne hartzen dituen lurralde zabal bat estaltzen du (Boukous 2011). Saghro mendiak irudikatzen duen hegoaldeko lerro baten eta Tazako korridoreak irudikatzen duen iparraldeko lerro baten artean kokatzen da. Gune honen ekialdeko eta mendebaldeko mugak, hurrenez hurren, Moulouya eta Grou ibaiak dira. Hiri nagusiak Meknes, Fez, Errachidia Khemisset, Azrou eta Khenifra dira. Azken hirurak Tamazigheraren erabilera altuagatik ezagunak.

Tachelhit-a

Hegoaldean, Tachelit-a hitz egiten da kostalde atlantikoan, antiatlasean. Agadir, Ouarzazate, Taroudant eta Essaouira hiriak dira hirigune nagusiak. Hala ere, Marrakech ez ezik Rabat eta Casablancara ere badira, Tachelhit hiztun askoren bizileku; Laghaoutek esan bezala «par son extraordinaire propension à essaimer dans les quatre coins du Maroc» (1995:15). Tachelhit barietatea egonkor eta homogeneoena da, adibide adierazgarriena zenbakiena izanik; Tachelhit hiztunak dira eta dirudienek, zenbakiak amazigeraz esaten dituzten bakarrak, beste bi barietateetan, zenbakiak, nagusiki, arabieraz esaten diren bitartean.

1.2.2 Isoglosak⁶ eta elkar ulertzea

Hizkuntzalariek bat egiten dute; bariedade desberdinen artean batez ere, geografikoki urrunekoak direnen artean elkar ulertzea oso zaila da, hala nola tarifit-a eta tachelhit-aren artekoa. (Ennaji, 1997; Boumalk, 2009). Amazigeraren bariedadei buruzko dokumentuak urriak dira, beraz zaila da ondorio batera iristea. Dena den, hipotesi linguistikoa bariedade bakoitzaren barnean ere aldaketa handia dela da, ez bakarrik eskualdez eskualde, baita herriz herri ere (Zouhir, 2013). Beraz bariedadeen arteko isoglosak ezartzea ez da erraza, XX. mendearen hasieran, André Bassetek zera esan zuen: « il n'y a pas proprement de dialectes en berbère... et l'on passe toujours insensiblement d'un parler à un autre, par transition, jamais par coupure brutale » (Basset, 1929 : 35), batez ere Tamazigh eta Tachelhitaren artean, nahiz eta goi atlasaren iparraldean egon ustezko *muga*.

1.2.3 Mendi guneeetan

Marokoko konfigurazio geografikoa amazigh hizkuntz bariedadeen biziraupenerako lagungarria izan den arren (Pellat, Ch., Yver, G., Basset, R. and Galand, L), arrazoi ezberdinak direla medio, isolamendu horrek berak mehatxatzen du amazigh identitatea egun. Landa-eremuak, bereziki pobretuta daude eta prekariedade egoeran bizi direnez urbanizazio⁷ prozesua gero eta ohikoagoa da. Hiriguneetan arabierarekin duten kontaktuaren eraginez asimilazio prozesua gertatzen da, amazigh kulturaren tradizioa alde batera utziz; horren adierazgarri da belaunaldien arteko hizkuntz transmisio urria (Boukous 2011).

Egoeraren bilakaera ikusita, nork amazigera hizkuntz gainbehera, higadura eta epe ertain edo luzera, heriotza prozesura kondenatua dagoela pentsa dezake. Boukous-en ustez, berriz, nahiz eta amazigeraren hizkuntza askoz indartsuekin kontaktuan egon biziraupena posible da, betiere maila instituzionalean pentsatutako eta aplikatutako biziberritze-estrategia batean integratzen bada eta amazigh komunitatea oso inplikaturatuta badago.

⁶ Isoglosa bariedade baten erabileraren espazio-eremua mugatzen duen lerro geografikoa da.

⁷ Hirietako populazioaren hazkundera: 1960an %29.15, 1971n % 35, 1982an % 42,7, 1994an % 51,4an eta 2004an % 55. (Boukous, 2011; 82)

2. GARAPENA MENDEETAN ZEHAR

Arabiar eta amazigh kulturaren arteko harremana lagunartekoa eta konkordian oinarritutakoa izan dela mito bat besterik ez da. Mendez mende, lehenak mendean hartu baitu bigarrena (Llorent-Vedmar, 2014). Hainbeste, ezen marokoar batzuek arabiarrek direla uste dute, gurasoek eta aitona-amonek amazigh hitz egiten ez dutelako, zalantzarik tarterik utzi gabe. Honen zergatia eta egun amazigerak bizi duen egoera ulertzeko, ezinbestekoa da historiari erreparatzea.

2.1 Protektoratu aurretik

2.1.1 Hiru arabizazio fase nagusi

K. a. II. mendetik aurrera. IV. mendera arte. Erromatar Inperioak Afrika iparralde osoa menderatu zuen eta badirudi latina amazigeraren ordezkotzat izateko zorian egon zela, hiriguneetan behintzat. Handia izan ez arren, latinak arrastoa utzi du egun hitz egiten den amazigheran batez ere Rifeko barrietan. Hala ere, dudarik gabe arabiar zibilizazioak izan du eraginik handiena eta erabakigarriena Marokoren historian (Zouhir, 2013)

Konkista eta gero, arabieraren erabilera hazi besterik ez da egiten eta Imazighenek osatzen duten biztanleriaren sektorea baztertuta geratzen da, hauen arabizazio prozesua ohiko bihurtzen delarik. Arabiarrek VII. mendean lurraldea indarrez hartu ondoren, arabizazioa hiru fasetan bereiz daiteke.

Hasierako arabizazioa.

681. urtean Umaiar kalifatoko Uqba Ibn Nafi-k Maroko indarrez hartu zuenean, Islama eta arabiera ekarri zituen. Hiri garrantzitsuenak hartu zituzten, latina arabierarekin ordezkatu eta neurrigabeko teknikak⁸ erabiliz bada ere, pixkanaka egonkortzen joan ziren. Eta horrela Idrissidioak⁹, VIII. mendetik X. mendera gobernatu zutenak, Marokoko lehen estatu musulmana sortu zuten (Moscoso, 2002).

Ennajib esan legez «remarkable relation between Arabic and Islam, as mentioned in the Qur'an itself, made this spread and dominance of Arabic unavoidable» (Ennaji

⁸ Arpilaketak zigorak...izaera hezitzaile zutenak ere bai: familia nabarmenen seme-alabak bahitzen zituzten Islamean hezteko, behin beren tribura itzulita, erlijio berriaren transmisio-bide gisa jardun zezaten, gizartearen islamizatu zedin (Llorent-Vedmar, 2014).

⁹ Dris La Marokoren aitatzat har dezakeguna, Tangerrera VIII. Mendearan amaieran iritsi zen Arabiatik, Abbasiengandik ihesi. Bere arrakasta handia, abbasiarrak gorrotatzen zituzten Marokoko iparraldeko jatorri amazighdun tribu multzoekin aliatzea izan zen. Gainera, Mohammed profetaren ondorengo zuzena izateko prestigioa ematen zion (Moscoso, 2002).

2005: 10). Epe luzera egia bihurtuko den arren «Au début du IXe siècle, l'arabisation reste un phénomène essentiellement citadin» (Benzakour, 2000, 22).

Hori bai, Chaker-ek ondo azaltzen duen moduan « Dans l'aire méditerranéenne où l'écrit est valorisé à l'extrême, sacralisé même dans la tradition islamique, le berbère ne pouvait être perçu, face à la langue arabe, que comme un idiome barbare et imparfait : d'où une forte et ancienne tendance à recourir à l'arabe pour toute expression élaborée.»¹⁰ (Chaker, 1989 : 834-835).

Sadiqi-k bat egiten du eta beraz argi gelditzen da Islamak arabizazio prozesuan duen garrantzia. «Written language and literacy are important tenets of Islam, and as much of the Berber population converted, their ideas about the value of orality changed in relation to Muslim ideas of literacy» (Bullock 2014; 33).

Beduinoen etorrera XI. mendean.

Ordurarte nagusiki hiriak arabizatuta zeuden arren, Marokoko hizkuntza-egoera aldatzen joango da XI., XII. eta XIII. mendeetatik aurrera, Ekialdetik lehen beduino tribuak¹¹ iristean (Beni Hilal tribuak). Tribu horiek dira hain zuzen ere, hirietatik haratago, landa-eremuetara eta mendietara hedatuko den arabizazio-aro berri baten eragile nagusiak (Moscoso, 2002). Hauek ere nomadak izanik, bizimoduaren antzekotasunak erraztu egin zuen bien arteko harremana, hainbat familia misto eratu ziren eta ondorioz, arabiera eskualde gehiagotara hedatu zen (Raha, 1993).

XV. eta XVII. mendeen artean Andaluziatik etorritako errefuxiatuak.

XIII. mendetik aurrera, arabiarren presentzia demografikoa sendoagoa izan zen, bereziki Errekonkista garaian Espainiatik kanporatutako andaluziarren etorrerarekin, gehienetan erabat arabizatutako Imazigenak izaten baitziren (Camps, 1995).

Shatzmiller-ek bat egiten du «La mayoría de los bereberes del norte de África se mantuvieron como bereberes hablantes mucho más tiempo que sus homólogos

¹⁰ Hizkuntza idatzia azken muturreraino baloratzen den mediterraneoan, eta islamiar tradizioan ere sakratua izanik, arabiar hizkuntzaren aurrean, hizkuntza barbaro eta burutugabe gisa baino ezin zitekeen hauteman, eta hortik edozein esamolde landutarako arabierara jotzeko joera sendo eta zaharra.

¹¹ Herri hauek beduinoak ziren jatorriz Siria, Arabia eta Yemenen. Lehenak, Afrika iparraldeko mendebaldera bidaliak izan ziren, Egiptoko kalifa fatimiaren bidez, Tunisiako zirien botereari aurre egiteko, baita fatimitar gortean arazo ugari ematen zituzten tribuak kentzeko ere.

andalusíes, y estuvieron menos expuestos a las ideas islámico-árabes» azpimarratuz (Shatzmiller, 1998).

2.1.2 Jatorri amazighdun lau dinastia

XI. mendetik XVI. mendera lau dinastia handi dira nagusi Marokoko lurraldean, hurrenez hurren: almoravidak, almohadeak, merinidoak eta wattasidak. Hala ere, dinastia hauen erregealdian, amazigera ez zen inoiz hizkuntza ofizialtzat hartu. Izan ere, inoiz ez zen administrazioa edo armada bezalako eremuetan erabili (Abouzaid, 2011).

Rachid el Hour-ek bere lanean (El Hour, 2015) horretako arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen zaltzen du. Almorabideen kasuan, dirudienez, legitimitatea bilatzeak pisu handia izan zuen, behin boterea finkatu ondoren ere, ez baitzuten urrats handirik eman amazigeraren erabilera zabaldu eta sustatzeko.

Almohadeek ildo berari jarraitu zioten arabieraren erabilera politikoari dagokionez, euren proiektu bateratzaileko ez ezik, erakundeen garapenerako ere arabiera erabili baitzen. Hala ere, doktrinaren hedapenerako almohadeek, arabieraz gain amazigera ere erabili zuten. Amazigeraren ezagutza ezinbestekoa zen adibidez, Fez hiriko meskitetan ostiraleko otoitza zuzentzen sermolari kargua betetzeko.

Merinioen kasuan ez zen horrela izan, dinastiaren jatorri arabiarra azpimarratzen zuten, Burt¹² amazigh-ak arabiarren ondorengoak zirela aldarrikatuz. Ezin zituzten beraz, ez sustraiak erabili, ezta hizkuntza eta kultura defendatu ere.

Hala ere, Koucharen hitzetan, gaur egun, amazigh komunitateak Marokon duen bigarren mailako egoerak 1549. urtean du hasiera, azken jatorri amazighdun dinastia Wattassideak erortzerakoan, arabiarrei eta arabiar hizkuntzaren nagusitasunari bide eman zitzaiolako (Koucha, 2000).

2.1.3 XVI.-XIX mendeak

XVI. mendetik XIX. mendera bitartean, bi arabiar dinastia izan ziren nagusi: lehenik saadiarrak, ondoren alauitak XVII. mendetik aurrera. Garai honetan jatorri amazighdun tribu asko arabizatuta daude jada, hau da, arabiera erabiltzen dute beren lehen hizkuntza bezala. Beste batzuk oraindik ere amazigh hizkuntz barietateetako bat

¹² Afrika iparraldea konkistatu zutenean, arabiarrek Imazighenak, eurak bezala, kabilatan (tribuetan) antolatuta zeudela ikusi zuten et kabila hauek bi kategoriatan banatuak Butr eta Barani (El Fasi, 1990)

erabiltzen dute, bereziki Atlas Handia eta Rifeko eskualde menditsuetan, baita hegoaldean ere. Botere zentrala Sultanak osatzen zuen, hala ere, populazioa tributan banaturik zegoenez boterearen zati bat buruzagi tribalen esku gelditzen zen. Sultanarekin leialak ziren eta ez ziren tribuak bereizi behar dira, ordea, *bled al-makhzen* eta *bled es-siba*¹³ izenez ezagutzen direnak (Pennell, 1991).

Amazigh komunitateko biztanleak, oro har, Siba eskualdearen zati dira. Gauzak horrela, botere zentralarekin kontaktu urria izateak, bai kultura zein hizkuntza babesten lagundu zuen (Landau, 1956).

2.2 Protektoratuan zehar¹⁴

1911n iparraldeko Imazighenek zuzendutako matxinada bat lehertu zen eta Abd al-Hafid sultanak, Frantziari laguntza eskatu zion. 1912ko martxoaren 30ean, Sultanak Fezeko Ituna sinatu zuen, eta Maroko ia berrogeita hamar urte iraungo zuen protektoratuan (1912-1956) murgildu zen (Miller, 2013).

École franco-berbèr

Frantses protektoratuan zehar, beraien intereserako bazen ere, administrazio frantsesak amazigh populazioaren berezitasuna kontuan hartu zuten, 1923tik aurrera, *école franco-berbèr* izena jaso zuten 20 eskola sortu baitzituzten amazigh komunitatearen presentzia handia zen gune geografikoetan (Abouzaid, 2011). Paul Marty ofizial frantsesak, 1925ean argi eta garbi adierazi zuen jarraitu beharreko estrategia zein izan behar zen, eskolen bitartez lortuko zuten kultura eta hizkuntza txertatzea.

«La escuela franco-bereber es la escuela francesa para la educación y la vida de los alumnos bereberes. Sin intermediarios extranjeros. Si bien cualquier enseñanza del árabe, intervención *fquih*¹⁵ o manifestación islámica serán rigurosamente excluidas... En resumen, estas escuelas bereberes serán organismos de la política francesa e instrumentos propagandísticos más que centros educativos en sí mismos» (MARTY, 1925: 241)¹⁶

Baina ez hori bakarrik, Lyauteley-ren hitzak aditzera ematen dutenez, eskola hauen beste helburuetako bat ondoko hau zen: eskualde bakoitzeko ezaugarriek eskatzen zutenaren arabera jokatzuz marokoarrak banatzea. «Ces écoles ont pour but d'appivoiser

¹³ Bled es-Sibak hitzez hitz anarkiaren eskualdea esan nahi du eta *bled el-Makhzenek* Makhzenaren menpeko eskualde.

¹⁴ Eragin handiagoa izan zuenez, Protektoratu frantsesa aztertuko da.

¹⁵ *Fiqh* terminoa, oro har, erlijio-ezagutzari dagokio, batez ere lege islamikoaren ezagutza, legezko arazoibidearen bidez eratorria.

¹⁶ Gaztelerara itzulitako zita hau (Llorent-Vedmar, 2014) lanetik eskuratutakoa da.

l'indigène et de maintenir discrètement mais aussi fermement que possible les différences linguistiques, religieuses et sociales qui existent entre le bled makhzen islamisé et arabisé et la montagne berbère religieuse mais païenne et ignorant l'arabe »¹⁷ (Benzakour, 2000, 38).

Dahir berèber

1930eko maiatzaren 16ko Dahir¹⁸-ean argi geldituko da hau. Dahir honek lege alorrean amazigh komunitatearen autonomia gorde eta hauek islamiar legeriatik salbuesten ditu, dagoeneko martxan diren auzitegi frantses eta Sharia errespetarazten duten auzitegi erlijiosoz gain, auzitegi tradizionalak proposatuz (Raha, 1993).

Bai kolonizatzaileek zein arabiarrek uste zuten Imazighenak influentzia arabiar-islamiarretik askatuz gero, kristautasuna eta kultura frantsesa errazago hartuko zutela eta beraz, *Dahir* hau, arabiarrek herrialdea Frantziaren mesedetan zatitzeko saiakera bezala antzeman zuten (Llorent-Vedmar, 2014).

Erabaki hori arabiar eta Imazighek arbuiatu egin zuten eta batasun nazionalarekiko atxikimendua eta nortasun nazionalarekiko leialtasuna adierazi zuten (Miller, 2013). Horrela *Dahir berèber* famatuak, etsaiarazi nahi zituenen batasuna piztu zuen Marokoko independentziaren aldeko borrokan.

Dena dela sortutako zalaparta eta ezegonkortasunaren aurrean, dekretua 1934an indargabetua izan zen, baina marokoar askok oraindik zauri sakon bat bezala gogoratzen dute (Abouzaid, 2011). Ondorioz, gaur egun ere, jende askok Imazighenen eskaerak barne kohesiorako mehatxutzat edo herrialdea hausteko arriskutzat hartzen dituzte.

2.3 Protektoratu ostean

Arabizazioa

Marokok 1956an independentzia aldarrikatu eta lehen urteetan, Arabizazio izeneko politika jarri zuen martxan, frantsesaren presentzia zabala desagerrarazteko asmoz. Arabiar estandarrak, Arabiar Ligako herrialde guztietan erabiltzen zenak,

¹⁷ Eskola hauen helburua bertakoak hezte den arren, diskrezioz baina ahalik eta irmotasun handienarekin bled al-majzen islamizatu eta arabizatuaren eta mendi bereber erlijioso baina pagano eta ezjakinaren artean dauden desberdintasun linguistiko, erlijioso eta sozialak mantentzea ere bada.

¹⁸ Art. 1 “Dans les tribus de Notre Empire reconnues comme étant de coutume berbère, la répression des infractions commises par les sujets marocains qui serait de la compétence des Caïds dans les autres parties de l’Empire, est de la compétence des chefs de tribus”

frantsesa ordezkatzeari zuzen helburu, batez ere gobernuan eta administrazio publikoan, baita eskoletan ere¹⁹.

Estatu kontzeptua

Dahir-ak juridikoki amazigh eta arabiar herrien artean sortutako bereizketa unitate nazionalaren bereizketa gisa ikustarazi zuten nazionalistek. Hauek hizkuntza, erlijio eta dinastia homogenea zituen estatua²⁰ irudikatu zuten: arabiarra, erlijiotzat islama zuena eta Sultanarena, hurrenez hurren (Wyrzten, 2011); eta badu inspirazio izan zitekeen eredu frantsesarekin zerikusia «une nation, un territoire, une langue, unes et indivisibles». Ez hori bakarrik, «For them the state should reinforce national unity through policies consistent with a historic trajectory of arabization and Islamization» (Wyrzten, 2011; 232). Beraz, arabizazio proiektua izeneko politikak, antzinako potentzia kolonialaren ahultzearekin batera, amazigh komunitatearena ere helburu du, «parce que est une réalité en contradiction évidente avec l'affirmation de l'arabité essentielle de la nation.» (Chaker, 2003; 75)

Errepresioa

Nazio islamiar eta arabiar bateratuaren ikuspegi nazionalistak amazigh kultura ezabatzeko egindako ahaleginak, gaur egun arte iraun du. Herri eta mugargi geografikoen izenak aldatu egin ziren (Lhoussain, 2004). Amazigh hizkuntza espazio publikoetan hitz egitea ahalkegarri bihurtu zen. Umeei jatorri amazighdun izenak jartzea debekatu egin zuten tokiko agintariak. Amazigh jatorriko pertsona ospetsu eta bataila historikoak baztertu egin zituzten Marokoko hezkuntza-programatik (Bennis, 2009). Amazigh kultura atzerakoi eta arkaikotzat jotzen zen... Zapalkuntza horiek nabarmen kaltetu zuten amazigh kulturaren egoera eta estatua.

Arabizazioaren ondorioak hezkuntza arloan

Arabizazioaren helburua, marokoar gizartean arabieraren lekua zein frantziar kolonizazioak arriskuan jarri zuten arabiar munduarekiko lotura berreskuratzea bazen ere, amazigh komunitatearentzat ondorio negatiboak izan zituen, Marokok zuten izaera multikultural eta lingustikoa ez baitzen aintzat hartu. Amazigera hezkuntza sistema osotik kanpo genditu zen; Unibertsitateari dagokionez 1956an indargabetu zuten Rabateko

¹⁹ Erabilera gutxitu zen arren arabizazioak ez zuten eremu horietan frantsesaren erabilera ezabatzea lortu.

²⁰ Independentzia osteko konstituzioetan «les Maghrébins sont arabes et musulmans», marokoarrak arabiarak eta musulmanak dira.

amazigh hizkuntza eta literatura katedra. Lehen eta bigarren hezkuntzan, irakasleak ikasgelan arabiera bakarrik onartzen zuen hezkuntza-politika zorrotza jarraitzera behartuta zeuden eta ez zuten ikasleen hizkuntza-beharrei erantzuteko askatasunik. (Daniel, M. C., Ball, A., 2009)

Baliabideak zituzten gurasoek berriz, eskola pribatuetara bidaltzen zituzten seme-alabak frantsesa eta beste hizkuntza batzuk ikas zituzten. Beraz, frantsesa eta arabiera klasikoa Mohamed VI.aren etorrerara arte ikastetxe publikoetan baimendutako bi hizkuntza bakarrak bihurtu ziren, nahiz eta Darijak (arabiera marokoarra) eta amazigerak eguneroko erabilera handiagoa izan.

3. INSTITUZIONALIZAZIORAKO BIDEAN

Orain arte, amazigerak gutxitua izatearen da ondorioak jasan ditu, neurri handi batean bere estandarizaziorik eza dela eta. Baina Boukousek esan bezala Estandarizazioa Estatuaren borondate politiko positibo eta eraginkorrak baldintzatzen duen prozesua da (Boukous, 2005). Marokoko historian zehar, estatuak ez du orain dela gutxi arte horretarako prestutasunik erakutsi, baina arrazoi desberdinak direla medio hainbat babes keinu ostean pausurik nabarmenena, 2001 errege hitzaldian eta urte bereko urriaren 17an IRCAM, amazigh kulturako errege institutua sortu zenean. Atal honetan ordurarteko gertakariak aztertuko dira.

3.1 Kontextu politikoa

1990ko hamarkadaz geroztik Marokoko agintariak hizkuntza-politikan jarrera desberdina hartu zuten eta zilegi da honen arrazoiak bilatu nahi izatea. Miriam Abouzaid-en ustez, amazigh hizkuntza eta estatuaren *amazighitatea* onartzeko faktoreak lotuta dauden dauden hiru puntutan bil daitezke: Trantsizio demokratikoaren arloan ekintza zehatzak egiteko premia, amazigh kultur-mugimenduaren boterea hazi izana eta Marokoko Estatuak mugimendu horren presioak mugatu beharra. Helburua eskaerak bideratzea da, kontrolatu ahal izateko eta aldi berean, mugimenduaren zati bat kooptatzea. (Feliu, 2006)

1990eko hamarkadan, aldaketa handiak gertatu ziren askatasun zibilen esparruan. Gobernu autoritariodun hamarkaden ondoren, Maroko estatu arabiarren artean eredu bihurtu zen erreforma politikoa sustatzeagatik (Miller, 2013). "Demokratizazio" honetan faktore exogenoek ere eragina izan zuten Marokok egoera ekonomiko kaxkarrak eraginda Nazioarteko Diru Funtzaren eta Munduko Bankuaren esku-hartzea eskatu behar izan

zuen. Laguntzaren truke, estatuari besteak beste, askatasun publikoa berma zezan, oposizio indarrak baimendu zitzaizkien eta zuzenean amazigh auzia xede zuen gutxiengoentzako aitorpena eskatu baitzitzaien.

Lehenengo amazigh elkarteak 1967an sortu bazen ere (oraindik aktiboki lanean jarraitzen duen AMREC) amazigh mugimenduak 1990eko hamarkadatik aurrera hartu zuen indarra, saretzen hasi baitzen, eta aldarrikapenak gero eta nabarmenagoak baitziren. (Ennaji 2014). Horren adierazgarri dira 1991n sinatutako Charte D'Agadir eta Berber Manifesto. Mugimenduaren indarra ikusita, Marokoko agintariek ez zuten mugimenduaren politizazioarako lekurik utzi nahi, beraz ez da harrigarria egoera horren kontrola mantentzen saiatu izana. Horregatik, amazigh komunitateari egindako aitortzak eta IRCAM-aren eraketa bera ere erreklamazioen bilakaera kontrolatzeko estrategiatzat har daitezke. (Feliu, 2006)

3.2 Gertakariak kronologikoki

Charte D'Agadir

Amazigh mugimenduaren aldarrikapen nagusiak azaltzen dituen lehen dokumentua izan zen, 1991n hizkuntza eta kultur eskubideak eskatzeko sinatu zen Charte D'agadir²¹ ezaguna. Bertan kultura eta hizkuntzaren egoera salatu, konstituzioan aitorpena exigitu eta hainbat arlotan integratzea aldarrikatzeaz gain, hizkuntzaren estandarizazioa ahalbidetuko duten hainbat eskari egiten ditu.

Adibidez, hizkuntza egokiro transkribatzeko sistema grafiko bateratu bat osatzea, gramatikaren estandarizazioa eta hizkuntza irakasteko tresna pedagogiko egokiak sortzea. Horrez gain, amazigh komunitatearen hizkuntza eta kultura hezkuntza-jarduera desberdinetan integratzea, hezkuntza publikoko programetan txertatzea eta amazigh hizkuntza eta kultura sail bat sortzea Marokoko unibertsitateetan. (Charte d'Agadir 1991) Charte D'agadir.

« L'unité dans la diversité » lemazpian auzkertutako dokumentua da eta ez dute independentzia, ez eskualde-autonomia eskatzen. Nazionalistek kontrakoa erakutsi nahi duten arren hizkuntza eskubideen eskakizuna ikuspegi integrazionista baten parte da, non

²¹ Charte D'agadir, osorik: http://www.axl.cefam.ulaval.ca/afrique/maroc-charte_agadir-1991.htm
Azken kontsulta, abuztuak 28.

Marokoren nortasun pluralean amazigh elementua funtsezko kontsideratzen den (Abouzaid, 2011).

1994ko abuztuaren 20an, Hassan erregeak amazigh auziaren presentzia lehen aldiz diskurtso ofizial batean onartu eta politikoki urrats garrantzitsua eman zuen lehen hezkuntzan amazigera txertatzea komeni dela aitortuz. «Au moment où nous engageons une réflexion nationale sur l'enseignement et les cursus, il convient d'envisager l'introduction, dans les programmes, de l'apprentissage des dialectes, sachant que ces dialectes ont contribué(...)au façonnement de notre histoire et de nos gloires»²²

Goulmianeko gertakaria²³ baretu (Abouzaid 2011) eta protesta handiak antolatzen ari ziren Tilellh erakundeko manifestariak baketu nahi zituela uste da eta NBE²⁴-ak ere zerikusia izan zekakeen. Nahiz eta komunitateak erregearen erabakia txalotu, ahalegin konkretu gutxi egin ziren (Ennaji 2014) Horren erakusgarri 1996ko konstituzioa « Le Royaume du Maroc, État musulman souverain, dont la langue officielle est l'arabe, constitue une partie du Grand Maghreb Arabe » Mohamed VI.aren erregealdirarte itxaron behar izan zuten hurrengo aitorpenerako.

1999 Charte Nationale d 'Educaçión et Formacion

1999an Charte Nationale d 'Educaçión et Formacion²⁵ dokumetuko 9. atalean aipatzen dute amazigera, berau irakastera irekita daudela aitortuz « Levier 9 :Perfectionner l'enseignement et l'utilisation de la langue arabe, maîtriser les langues étrangères et s'ouvrir sur le Tamazight²⁶ . Hala ere 115. Artikuluan zehazten duen moduan amazigera irakastearen helburua hizkuntza ofiziala ikastea erraztea da. «Les autorités pédagogiques régionales pourront, dans le cadre de la proportion curriculaire laissée à

²² Irakaskuntzari eta kurtsoei buruzko gogoeta nazionala egiten ari garen honetan, komenigarria da programetan dialektoen ikaskuntza sartzea kontuan hartzea, jakinik dialekto horiek gure historia eta gloriak osatzen lagundu dutela.

²³ Goulmimanen, tfinaghez idatzitako pankartekin, amazigeraren ofizialtasuna eskatzearen atxiloketak egin zituzten. Amazigh mugimendua eta giza eskubideen erakundeak masiboki mobilizatu zirelako askatu zituzten arren, gatazka ez zen baretu.

²⁴ 1994 Herri Indigenen inguruko Nazio Batuen bileran, Imazighenak talde "indigena" gisa identifikatu zituzten. Honek NBE-ak gomendatutako edo bestela exigitutako eskubide batzuk aitortzen dizkie, beren hizkuntza propioa erabiltzeko eskubide osoa barne.

²⁵ Osorik <http://ilo.org/dyn/natlex/docs/ELECTRONIC/91414/106007/F1676455974/MAR-91414.pdf> Azken kontsulta, abuztuak 28.

²⁶ Terminologia aldaketa adierazgarria da Bertan, dagoeneko ez da amazigh dialektoa aipatzen, amazigh hizkuntza baizik (1994ko errege hitzaldian "dialekto" gisa egiten zaio erreferentzia). Aurrerapausua da, hizkuntza/dialekto dikotomiaren konnotazioak direla eta.

leur initiative, choisir l'utilisation de la langue Amazigh ou tout dialecte local dans le but de faciliter l'apprentissage de la langue officielle»²⁷

Eta honek, amazigh elkarteak erabat desengainatzen ditu (Feliu, 2006). Edonola ere, irakasleak askatu zituen amazigh identitatea eta ondare kulturala sustatu zein amazigh hizkuntzetan irakasteko, ikastetxeei autonomia eskaintzen bait zitzaien (Daniel, M. C., Ball, A., 2009). Horrez gain, 2000-2001 ikasturtetik aurrera amazigh hizkuntza eta kultura-garapeneko eta ikerketa-egiturak sortuko direla xedatzen da, bai eta eskola programak eta irakaskuntza prestakuntzako programak ere (116 Art).

Hitzaldi horren ondoren, amazigh elkarteek bikoiztu egin zuten amazigh hizkuntza eta kultura sustatzeko ahalegina, eta GKE berriak sortu ziren errege erabakia ezar zedin. Horrez gain amazigh komunitatearen aldarrikapenak giza eskubideen erakundeek babestu zituzten eta nazioarteko arreta erakartzen hasi zen (Sadiqi, 2011).

Amazigh Manifestua

2000ko martxoan berrehun intelektual inguruk, Mohamed Chafik unibertsitateko katedraduna buru zutela, manifestu²⁸ bat argitaratu zuten, besteak beste islamiar aurreko garaietatik Marokoren *amazighitatea* azpimarratu eta amazigera arabierarekin batera hizkuntza ofizial bihurtzeko eskatuz.

Laugarren aldarrikapenean, amazigeraren irakaskuntza bultzatzeko legeak eta amazigera normalizatzeko eskatzen du, eta horrez gain behar diren tresna pedagogikoez hornitzeko institutuak sortzeko. «Demandons-nous au Gouvernement de préparer et de mettre en œuvre des lois rendant obligatoire l'enseignement du berbère, dans les écoles, les collèges, les lycées, les universités et les établissements assimilés. Nous lui demandons en outre de créer des instituts destinés à normaliser la tamazighte et la doter des outils pédagogiques dont elle a besoin»²⁹ (MANIFESTE BERBÈRE, Quatrième revendication)

²⁷ Eskualdeko agintariak, berain esku utzitako eskola curriculum zatian, Amazigh hizkuntzaren erabilera edo bertako edozein dialekto aukeratu ahal izango dute, hizkuntza ofiziala ikastea errazteko asmoz.

²⁸ Osorik: <https://www.axl.cefan.ulaval.ca/afrique/berbere-manifeste-2000.htm> Azken kontsulta, abuztuak 28.

²⁹ Gobernuari amazigera irakastea derrigortuko duten legeak prestatu eta eskoletan, ikastetxeetan, institutuetan, unibertsitateetan abian jar ditzan eskatzen diogu. Horrez gain, amazigera normalizatzeko behar diren erakundeak sortzeko eskatzen diogu eta tresna pedagogikoz hornitzeko, behar denean.

IRCAM-aren sorrera.

Marokoarren % 40k baino gehiagok bere sustrai amazighekin bat egiten zuen oraindik, beraz, Mohamed VI.ak gaiaren garrantzia ulertuta 2001eko urriaren 17an, Agadirren, Mohamed VI.ak Institut Royal de la Culture Amazighe-en (IRCAM) sorrera iragarri zuen eta Mohamed Chafik izendatu zuen lehen zuzendari, amazigh komunitatearen eskariei erantzunez. Egitate hau ezagutarazteko, errege hitzaldian Marokoko kultura eta hizkuntza aniztasuna herritar guztien aberastasun bihurtzen da, eta erregea hauen babesa eta sustapena bermatzera konprometitzen da, horretarako IRCAM izendatzen duelarik. «Ainsi, en s'acquittant de ses missions de sauvegarde, de promotion et de renforcement de la place de la culture amazighe dans l'espace éducatif, socioculturel et médiatique national, l'Institut Royal de la Culture Amazighe lui donnera une nouvelle impulsion en tant que richesse nationale et source de fierté pour tous les Marocains»³⁰

Eta horrela instituzionalizatzen du egun bereko data duen Dahir³¹-ak *amazigh auzia*, amazigera estandarizazioa eta sektore guztietan, baina bereziki hezkuntzan eta komunikabideetan sustatzeko helburua duen IRCAM-en bitartez (Ennaji 2014).

4. ESTANDARIZAZIOA

Hizkuntza bat normalizatzeko, hezkuntzan, administrazioan eta komunikabideetan erabili ahal izan behar da. Horretarako, ezaugarri dialektalak gainditzen dituen idazketa-eredu estandar bat behar du; gaur egun, hizkuntzaren etorkizuna ziurtatzeko ezinbesteko urratsa dena. (Gerediaga, 2010) Amazigeraren kasuan IRCAMeko, Centre d'Aménagement de la Langue (CAL) hizkuntza plangintza zentroari dagokio zeregin hau.

IRCAM-aren ezaugarriak

Institutua erregearen ikuskaritzapean dago (1.Art.), eta eginkizunak eskumena duten ministerioekin lankidetzan behar ditu (batez ere hezkuntza eta kultura ministerioekin), 2.artikuluari zehazten den bezala kontsulta-funtzioa izanik. 8. Artikuluak. Administrazio Kontseiluaren erabaki guztiak erregearen onespeneraren mende

³⁰ Beraz, amazigh kultura esparru hezitzaile, soziokultural eta mediatikoan babestu, sustatu eta indartzean, Amazigh Kulturaren Errege Institutuak (IRCAM) bultzada berri bat emango dio, ondasun nazional eta marokoar guztientzako harrotasun iturri bihurtuz.

³¹ 2001 Dahir <https://www.axl.cefan.ulaval.ca/afrique/maroc-dahir2001.htm> Azken kontsulta, abuztuak 28.

daudela xedatzen du. Gainera, Institutuaren aurrekontua errege gortearen aurrekontutik dator.

Hori dela eta, IRCAMen lana ez dago aho batez onartua Marokoko amazigh komunitatean. Batzuek helburu nagusia herrialdea arabizatzea duen gobernuaren soldatapean egotea leporatzen baitiote³² (Leclerc, 2020).

IRCAM-eko hizkuntza plangintzarako zentroaren helburu nagusia amazigh hizkuntza estandarizatzea da, hezkuntza-sisteman, komunikabideetan eta, oro har, bizitza publikoan integratzeko. Epe laburrean, helburuak honako hauek ziren: ortografiaren kodifikazioa, lexikoa eta gramatika estandarizatzea, oinarrizko amazigeraren hiztegiak sortzea, hiztegi espezializatu modernoaren eremuan eta hiztegi tradizionalaren eremuan (IRCAM, webgunea).

Abantailak eta desabantailak

Estandarizazioak abantaila argiak dituen arren, desabantailak izan ditzakeela ez da ahaztu behar. Komunitateko kide guztiak komunikatzeko erabil dezaketen tresna sortzen da eta hizkuntza komuna eta ulergarria izateak herritarrak bateratzen ditu. Horrez gain, identitatearen sentimendua indartzen du; hiztunei ere prestigioa ematen die eta hizkuntza irakastea, hau da, hezkuntza sisteman integratzea errazten du.

Hala ere, hizkuntzaren normalizazioak ere baditu desabantailak. Hizkuntza-aberastasuna murrizteaz gain elite-sentimendua sor dezake hizkuntza estandarra erabiltzen duten eta gutxiagotasun-sentimendua forma ez-estandarra erabiltzen jarraitzen dutenen artean. Eta beraz, Diglosia-sistema bat eratzea, non barietate estandarra prestigiotsua den eta ez-estandarren maila baxuagokoa, honek behe-mailako hiztunen artean gutxiagotasun-konplexua sortzen duelarik (Ramlan, 2018).

4.1 Hizkuntza plangintza

Estandarizaioa, hizkuntza-plangintzako zati den corpusaren plangintzari dagokio nagusiki. Prozesu honen helburua amazigeraren egoera eta hizkuntzaren merkatuan dauden beste hizkuntza batzuekin duen harremana aldatzea da, jomuga planifikazio instituzionalaren bidez, testuinguruan diren hizkuntzen arteko aukera-berdintasuna delarik (Boukous, 2012).

³² 2006an, dozenaka elkartek osatutako koalizio batek txosten bat aurkeztu zion Nazio Batuei eta bertan IRCAM «amazigh mugimendua zapaltzeko sortutako gaizkilearen tresna» gisa kondenatzen zuten (Miller, 2013).

Hizkuntza-plangintza bi esku hartze arlotan erabiltzen da batez ere, hizkuntzan eta gizartean. Hizkuntzaren alorrean, hizkuntzaren estandarizazioarekin lotuta izaten da eta ortografia zein gramatika araudi bat egitea izaten da, hiztegi erreferentzial bat eta oinarritzko beste baliabide batzuk. Soziolinguistikaren terminologian, “corpusaren plangintza” esaten zaio plangintza horri, eta “corpusa” “hizkuntza-aldaera arauemailea” izaten da. Gizartearen arloan, berriz, hizkuntza plangintzaren helburua hizkuntza baten estatus soziala aldatzea izaten da, eta, beraz, “estatus plangintza” izendapena jasotzen du. (Gomez, 2010)

4.1.1 Korpusaren plangintza

Korpusaren-plangintzaren hasieran hartu beharreko erabaki garrantzitsuetako bat hizkuntza-estandarra ze mailalara gauzatu behar den ebaztea da; amazigeraren kasuan, hiru maila aurreikus daitezke: nazioz gaindikoa, naziokoa edo eskualdekoa. Eskualdeen estandarrak eratzea zen hurbilketarik errealistena; izan ere, elkar ulertzeko espazioa funtsean eskualdekoa da. Hala ere, irtenbide hori bateraezina da amazigh hizkuntza ofizial gisa konstituzionalizatzeko aldarrikapenekin (Boumalk, 2009). IRCAM-ek beraz, nazioko estandarra sortzearen aldeko hautua egin zuen, betiere barietate desberdinen bizitasuna ziurtatuz.

Laborategiko lengoia bat sortzea sahiestearren, lana progresiboa eta konbergenteki egin zutela aitortu dute (Boukous, 2008). Beraz, normalizazio hori bi etapatan gauzatu zen: batetik, eskualde barruan, hau da, hiru barietate-eremuen mailan, eta gero beraien artean, hau da, Maroko mailan (Boukous, 2004). Horretarako, IRCAM-eko CAL sailean, hiru eskualde dialektaletako hizkuntzalariak elkarrekin egin zuten lan.

Kodifikazioa

Funtsean ahozkoa den amazigeraren kasuan, idazketa sistema baten hautapena, logikoki, estandarizazioaren lehen urratsetariko bat da, jarraian aztertuko dena.

Amazigh-en idazketa sistema ez da berria. Izan ere, amazigh komunitateak antzinarotik, libikoa edo tfinagh deituriko idazkera baliatu zuen, gizateriaren lehen idazkera fonogramatikoetako bat, hain zuzen ere (Boukous, 2014). Baina orain dela 14 mende erabiltzeari utzi zioten. Harrezkero, belaunaldien arteko transmisioa ahozko tradizioaren bidez egin da hein handi batean. Bizitza sozial eta profesionalaz gain, kultur ekoizpena ere ahozkoa izan da, hala nola ipuinak, poesia, kanta, esaera zaharrak, asmakizunak... (Boukous, 2012).

Haatik, inguruabar historikoen arabera, harremanetan egon diren komunitateen idazketa-sistemak maileguan hartu dituzte, arabiar karaktereetan idatzitako amazigh literatura zein eta latindar karaktereetan idatzitako testu, glosarioek erakusten dute hori. Hau kontuan izanda 2003an Marokoko gobernuaren batzorde bat izendatu zen amazigera latindar, arabiar edo tfinagh idazkera kodetu behar zuen zehazteko (Soulaïman, 2015). Iritziak iritzi, amazigh identitatearen sinboloa den ondarea babesteko borondatearekin hautatu zen tfinagh idazkera. Hortik aurrerakoa IRCAM-en esku utzi zuten.

Tfinagh alfabetoaren 3 aldaera dira erabiliak izan direnak edo oraindik ere erabiltzen direnak. Proto-Tfinagh edo Libikoa, antzina VII. mendera arte baliatu zena; gaur egungo Tuareg-ek nahiz eta eskutitz edo mezu luzeagoetarako ez erabili, jolasetarako, maitasun mezuetaarako eta dekorazioetarako erabiltzen duten Tfinagha eta neo-Tfinagha, hirurogeiko hamarkadan, Aljeriako hizkuntzalari gazteek tfinagh tradizionalaren bertsioetatik abiatuta garatu zutena. (*M'Sur*)

IRCAM-ek egoera aztertu ostean, neo-tfinagha oinarritzat hartu eta zeinu batzuetan aldaketak egin ditu marokoar amazigh estandarren sistema fonologikora egokitzeke, errendimendu funtzional oso txikia duten unitate fonikoak neutralizatuz. (Andam, 2018) Tfinagh alfabeto estandarra (Eranskina 2) prestatzeko orduan ezinbestekoa bait da estandarizazio prozesuko parte dela kontuan izatea eta honek dituen beharrak asetzea (Boukous, 2014).

Morfosintaxia

Normalean estandarizaziorako aldaera bat hautatzen da baina IRCAMeko hizkuntzalariek hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa berezi baten alde egitea erabaki zuten; hiru aldaerak oinarri hartuta eraiki baitzen estandarra (Ansar, 2013). IRCAM-eko ikerlariak amazigeraren hizkuntz-eskubideak berdintasun sozio-politikoaren izenean aldarrikatu zirenez, korpusaren plangintzan ere horrela jokatzeko koherentea zela aitortu zuten (Abouzaid, 2011).

2008an argitaratutako gramatika liburuak, estandarizazioa gauzatzeko erabili zen metodoa irudikatzen zuten hiru printzipio aipatzen ditu.

- Hizkuntzaren batasuna jomuga izanik: barietate desberdinek partekatzen dutena edo ohikoena dena oinarritzko morfema edo tresna gisa ezarri.

-Hizkuntzaren aberastasuna babestu tresna gramatikal, zein egituretan.

-Bariaziorako tartea uzten dute: aberastasun linguistikoaren iturria da eta helburu estilistikoekin ustiatu daiteke (Boukhris et al., 2008: 12-13).

Hala ere aldakuntza txikiena erakusten duen faktore linguistikoa morfo-sintaktikoaren maila da (Ansar, 2013) baina lexikoari dagokionez ere antzeko eran jokatu dute.

Lexikoa

Lexikoaren plangintzan bi eginbehar nagusi daude. Lehenengoa hizkuntzaren tradizioak dituen datu linguistikoak bildu eta bigarrena, lexikoaren errepertorioa eguneratu, modernizatu eta aberastea, hitzen sorkuntza edo mailegua erabiliz.

Tradizioa aztertuta, barietateek amankomunean duten lexikoa % 50 inguru dela konturatu ziren eta horrek Amazigh hizkuntzak aniztasun lexiko handia duela esan nahi du. (Ennaji, 2003). Aberastasun terminologiko horrek arazo larriak sor ditzake kudeaketa demokratikoa egin nahi den kasu honetan. Ahal den guztietan, aldaera lexiko horiek sinonimo gisa tratatzen dira. Hala ere, benetako sinonimoak beti bakanak direnez, aniztasuna esanahiak fintzeko, hizkuntzaren estilistika eta pragmatika aberasteko ustiatzen da, aldi berean, hizkuntzaren hutsuneak betetzeko (Abouzaid, 2011).

Bigarren lanari dagokionez, terminologia-lanaren premia larria dela eta, IRCAMeko ikertzaileek glosario tekniko eta hiztegi bereziak egin dituzte, batez ere hezkuntzaren, administrazioaren eta komunikabideen arloetan.

Horrela pausu garrantzitsua eman da amazigh hizkuntzaren plangintzaren testuinguruan, hizkuntza estandarizatu izanak, hezkuntza-sisteman eta komunikabideetan, zein, oro har, bizitza publikoan amazigerari lekua egingo diolako (Boukous, 2012). Ez hori bakarrik, amazigh-aren biziberritze-prozesuan ere bai, ahozko zein idatzizko erabilerak izateak amazigera erabil daitekeen komunikazio-egoerak biderkatzen baititu. Eta onura horrek, zalantzarik gabe, amazigharen balioa indartzen du hizkuntzen merkatuan, hizkuntza idatzien zerrendan sartu baita.

4.1.2 ESTATUSAREN PLANGINTZA

Estatusari buruzko esku-hartzeak borondate politikoa eskatzen du (Boukous, 2011). Borondate hori ez badago, ahoskera, gramatika, hiztegia, ortografia eta abarren normalizaziora bideratutako ekintza guztiak, zehatzak, egokiak eta finak direnak direla ere, hutsaren hurrengoa balio dute. Espezialisten eta militanteen zirkuluetara mugatuta

geratuko baitira, eta beraz, ez dute eragin eraginkorrik izango gizarte-esparruan. (Boukous, 2011) Hala, instituzioek hezkuntzaren, komunikabideetan, toki-administrazioetan...esku-hartzeak berebiziko garrantzia du. Marokoren kasuan ez da horrela izan, utzi hizkuntza bakean politika jarraitu baita (Ansar, 2013).

Ofizialtasuna eta estatusa

2011n, otsailaren 20ko protesta-mugimenduetan ere parte hartu zuten, Amazigh biziberritzeko eta konstituzioan aintzatesteko eskatuz (Miller, 2013). Hainbat faktorek eraginda³³, luzeroan eskatutakoa bete eta 2011ko konstituzioan amazigera hizkuntza ofizial bihurtu zen. Konstituzioak dioenez, «arabiera Estatuko hizkuntza ofiziala» da, baina «amazigh ere Estatuko hizkuntza ofiziala da, marokoar guztien ondare komuna, salbuespenik gabe».

Esaldia formulatzeko era³⁴ kritikatu izan zen, arabiera «hizkuntza ofiziala» amazigeraren «hizkuntza ofizial bat» gainetik zegoela aditzera ematen zuelako. Horrez gain, «ere» hitza erabiltzeak atsekabetu egin zituen, amazigeraren gutxiagotasuna adierazten zuela uste baitzuten. (Soulaïmani, 2016) Edonola ere landa eremuetan erabiltzen den ahozko hizkuntza izatetik irakasten den, aitorpena jaso duen eta teorikoki sustatu behar den hizkuntza bihurtu da. Aurrekaririk ez duen lorpena den arren, marokoarrek ofizializazio hau bizitza errealean martxan jarriko duten lege organikoen zain jarraitzen dute. Orain, amazighenek estatuko erakundeetan beren hizkuntza erabiltzeko eskubidea duten arren, ofizialtasuna administrazio publikoan islatu dadin eta amazigera komunikazio-hizkuntza dutenek zerbitzu egokia jaso dezaten falta da.

4.2 IRAKASKUNTZA ETA ESTANDARIZAZIOA

Irakaskuntzak, amazigaren biziraupena eta kultura bultzatzeaz gain, honen garapen eta sustapen eraginkorra bermatzen ere laguntzen du (Andam, 2018). Ez hori bakarrik, ama hizkuntzaren ezagutzea sakondu eta komunikazio-beharrak bermatzen laguntzen du, ikasleak hizkuntza kontzienteki baloratuz, haren bidez mundua hobeto uler baitezake (Gerediaga, 2010).

³³ 2010eko abuztuaren 27an, Arraza-bereizkeria Ezabatze Nazio Batuen Batzardeak (CRED) Marokok Nazio Batuen Konbentzioaren 9.artikuluarekin bat aurkeztutako txostenak aztertu zituen, eta ondorioz, zenbait betebeharrak jakitera eman zizkion, besteak beste, amazigera sustatzeko ahaleginak areagotu behar zituela, eta berau konstituzioan txertatzea kontuan hartu behar zuela.

³⁴ « [l]’arabe demeure la langue officielle de l’État. L’État œuvre à la protection et au développement de la langue arabe, ainsi qu’à la promotion de son utilisation. De même, l’amazighe constitue une langue officielle de l’État, en tant que patrimoine commun à tous les Marocains sans exception [...] »

Hezkuntzan sarrera

1994 errege hitzaldian aipatu eta 1999ko Charte d'Education-ean ofizialki onartu bazen ere 2003. urtera arte ez zen amazigeraren irakaskuntza hezkuntza sisteman ezarri³⁵. Erresuma osoan zehar banatutako 317 eskoletan izan zen, lehen hezkuntzako lehen zikloan (Idhssaine, 2020). Helburua horizontalean, Marokoko lurralde osora zabaltzea da eta bertikalean, ziklo eta maila guztietara.

Hezkuntzak amazigh-hizkuntzaren garapenean eta iraunkortasunean duen garrantzia kontuan harturik .IRCAMEk lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuen 2003an Hezkuntza Ministerioarekin (MEN) eskoletan Amazigh integratzeko programak eta irakasleen prestakuntza saioak lantzeko (Sadiqi, 2011).

Hezkuntza ministerioaren zereginak.

Hezkuntza ministerioa (MEN) berriz, amazigera hezkuntza-sisteman nola txertatzen diren ikuskatzeaz eta proiektuaren arrakasta ziurtatzeaz arduratzen da, honen menpe dauden *Académies Régionales d'Éducation et de Formation*, Hezkuntza eta Prestakuntzarako Eskualdeko Akademien bitartez. Era berean, amazigh testuliburuak banaketa lurralde nazional osoan bermatzeaz gain, amazigera hezkuntzan pixkanaka integratzeko eskola-mapa eta egutegia egin behar ditu (Llorent-Vedmar, 2014).

IRCAM-enak

IRCAM-eko Centre de la Recherche Didactique et des Programmes Pédagogiques-en ardura amazigh hizkuntza sustatzea da hezkuntza eta prestakuntza sisteman.

Azken honi dagokio amazigh hizkuntzan eta kulturaren irakasleak trebatzeko programak sortzea, ikuskari eta instruktoreentzako prestakuntza-planak garatzea. Hori ez ezik, amazigeraren irakaskuntza eta ikasketarako testuliburuak zein erreferentziako materialak, hala nola gramatika-liburuak, hiztegiak... sortzeaz ere arduratzen da informazioaren teknologia berriek arlo honetan eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuz baita unibertsitatean eskaintako moduluez ere (IRCAM, webgunea).

IRCAM-aren ahaleginak goraiagarriak dira irakaskuntza-tresnen garapenari dagokionez. Testuliburuetan, lehen hezkuntzako lehen zikloan (1. eta 2. mailan) ikasleak

³⁵ Amazigeraren irakaskuntzan bi faktorek izan zuten eragina, Marokon antzinakoena zen identitatea babestu beharrak eta milioika haurrek ama hizkuntza izateak (Sadiqi, 2011).

etxean erabiltzen duenaren antzeko hizkuntza erabiltzen da. Bigarren zikloan (3. eta 4. urteak), gutxinaka beste aldaera batzuekin tartekatzen da eta hirugarrenean (5. eta 6. urteetan), nolabaiteko amazigh estandarizatua. Halaber, elkarrizketetan oinarritutako ikuspegi situazionala dute eta amazigera dakitenentzat zein ez dakitenentza baliagarri izan daitezten. Alabaina, Boukousek onartu du testuliburu berriak diseinatzeko era ezberdina izango dela amazigera inoiz hezkuntza-hizkuntza balitz.

Horrez gain, IRCAMeko ikertzaileek maisuentzako eskaintako formakuntza iraupen laburrekoa izan zen arren, erabilgarria izan zen. Hala ere, IRCAMeko ikertzaileek irakaskuntza bideragarri izateko prestakuntzaren garrantziaz ohartu eta unibertsitate mailan esku hartu zuten.

Horrela, Agadir, Fez eta Oujda unibertsitateetan amazigeraz graduak eskaintzen dituzten departamentuak sortu ziren. Marokoko beste unibertsitate batzuetan ere, (Rabat eta Tetouanen) badaude amazigerarekin lotutako masterrak. Helburua ikasleei bitartekaritza kulturala, itzulpena eta hizkuntza irakasteko beharrezko tresnak eskaintzea da (Saoudi, 2014). Orain arte, ez da Amazigh gaiekin loturiko doktorego programarik egon; hala ere, unibertsitateko akademikoak proiektu batean ari dira lanean hori posible izan dadin.

2003. urtetik hona.

2003. urteaz geroztik aurrera pausuak eman dira, 2018-2019 ikasturtean 600.000 ikaslek (4.200 zentro) jaso zituzten amazigeraz eskolak, hiru³⁶ orduz astean (Guessous, 2018). Baina bilakaera³⁷ geldoa da. Nahiz eta marokoar erreinuko eskola guztietan irakatsi beharko litzatekeen (amazigera hitz egin zein ez), Eskualdeko Akademia batzuk entzungor egiten diote Ministerioaren oharrei eta erresistentzia horrek zaildu egiten du amazigeraren hezkuntza ezartzea, mantentzea eta garatzea. Beraz, azpimarratzekoa da Hezkuntza Ministerioaren eta haren mendeko erakundeen parte-hartze eskasa eta Lhassane Andamen ustez, hori da Amazigeraren irakaskuntzaren arazo nagusietako bat (Andam, 2018).

Ez da hizkuntza ministerioak egindako akats bakarra. 2016-2017 ikasturtean Hezkuntza Ministerioak egindako zerrendak ez zuen amazigera irakasteko testuliburua

³⁶ Zentro bazuetan ordu horiek beste funts batzuetarako erabiltzen direla ere antzeman da (Sadiqi 2011).

³⁷ 4 milioi ikasle inguru dira lehen hezkuntzan eta 2006-2007 ikasturtean 298.000, 2007-2008 an 349.712, eta 2008-2009an 496.782 ikasle izan zire amazigeraz eskolak jaso zituztenak (Sadiqi, 2011). Beraz 10 urtetan 100.000 ikasleko aldea bakarrik.

barne hartzen, horrela, amazighen testuliburua merkatutik kanpo utziz. Hortaz, ez da harritzekoa Pro-amazigh mugimendu eta erakundeek, horien artean IRCAM erakundeak, Hezkuntza Ministerioa amazigerak hezkuntza sisteman txertatzeko geldotasun eta zailtasunen erantzule izendatu izana.

4.3 KOMUNIKABIDEAK, INTERNETA ETA ESANDARIZAZIOA

Komunikabideek dituzten funtzio anitzak kontuan hartuta, bistakoa da hizkuntzen balioa handitzen laguntzen dutela. Amazigeran kasuan komunikabideetan duen pisua hazten ari dela esan daiteke, oraindik ere produkzioa kuantitatiboki eta kualitatiboki ahula izan arren (Boukous, 2012). Irratian du presentziarik zabalena, amazigeraz jarduten dutenak garai koloniala geroztik existitu izan dira eta.

Prentsa idatziari dagokionez, 1994an, arazo ekonomikoengatik hilabete batzuk besterik iraun ez zuen Tamunt izeneko egunkari bat jarri zen martxan eta orduztik Tifawt edo Tamazight egunkariak ere sortu ziren. Aipaturikoek amazigeraz idazten zuten arren, gaur egun, Le Monde Amazigh hileroko aldizkaria da esanguratsuen eta honek, arabieraz eta frantsesez, idazten dute; Amazigera irakurtzen dakiten pertsona gutxi baitaude (Llorent-Vedmar, 2014). Hala ere, amazigeraren auziaz arduratzen diren egunkari eta aldizkari kopuruak ere gora egin du.

Telebistan berriz, 2011 arte presentzia xumea zuen arren 2011an Tamazight TV Marokoko zortzigarren telebista-kate publikoa, 'Tamazigh TV jarri zen martxan, eta programazioaren %75 amazigeraz eskaintzen da. Amazigeraz eskainitako emisio-orduak hazi egin dira albisteak eta iragarkiak ez ezik kate berriak telesailak garatzea ere ahalbidetzeaz gain filmak amazigera itzultzen hasi delako (Ennaji, 2014).

Hedabideetan amazigeraren erabilera sustatu eta arabierazko, frantses eta ingelesezko maileguak masiboki inportatzea saiheste aldera IRCAMeko hizkuntzalariek komunikabideei eskainitako lehen glosario bat garatu zuten (Boukous, 2012) premiazkoa delako sail bakoitzari berariazko terminologia ematea.

Interneta eta komunitatea

Internet aurretik, Marokoko amazighek ez zuten antzeko komunitaterik ezagutzen Afrikako beste leku batzuetan. Amazigh populazioak eremu etenetan eta azpitaldeetan banatuta egon ohi direnez, horietako bakoitzak arazoak tokian tokikoak zirela suposatzen zuten. Baina internetek eta satellite bidezko telebistak nazioz gaindiko plataformak eskaini

zizkieten amazighei, arazoak zein ideiak elkar trukatu eta kultura partekatze³⁸ (Almasude, 1999). Gaur egun, komunikazio-sareak eta sare sozialak Amazigh hizkuntza eta kultura sustatzeko erabiltzen dituzte. AmazighWorld, Amazigh-voice eta Tamazgha bezalako blogek auzia nazioartean zabaltzen lagundu dute. Beste dozenaka web gunek Amazighen identitateari buruzko eztabaidarako eta hizkuntza curriculumean eta baliabideetan barneratzeko estrategietarako balio dute (Ennaji, 2014).

Ez hori bakarrik, web guneez informazioa internetera sarbidea duen orori eskaintzen diote. IRCAMen webguneak (<http://www.ircam.ma>) esaterako, liburutegia, Asinag-Asinagy aldizkaria, argitalpenak, gaurkotasunak eta abar eskaintzen dizkigu. Hori ez ezik, hainbat material didaktiko eskuratzeko aukera ematen digu *Ecole Amazigh* atalean. Beraz, internetak ekarpen positiboa egin diola ukazina da.

ONDORIOAK

Boukousek 1992an idatzitakoak, amazigerak izandako bilakaera positiboa ondorioztatzen laguntzen du. Berak Amazigera sustatzeko hartu beharreko premiazko neurriak ondorengoak zirela adierazi baitzuen (Boukous, 1992):

- 1.Sistema grafiko egokia sortzea.
- 2.Hizkuntzaren normalizazioa, gramatikako eskuliburuak, irakurketa liburak, hiztegiak eta lexiko espezializtua sortuz.
- 3.Tamazight hizkuntzaren eta kulturaren irakaskuntza. Irakaskuntza hau, lehenik eta behin unibertsitate mailan hasi beharko litzateke, ondoren beheko zikloetan aritu daitezkeen irakasleak prestatzeko.

Eta kostata izan arren, helburu hauek neurri batean bete izana, emandako aurrera pausuen erakusgarri da.

Amazigerak landa eremua, isolamendua eta ingurune ekonomiko prekariora alde batera utzi eta espazio instituzional berriak konkistatu ditu. Era berean, funtzio soziolinguistikoak eta erabilpen-eremua handitu ditu eta bizitza modernoan integratzeko prest dago. Hizkuntza idatzira salto egin izanak eta eredu estandarrak ahalbidetu dute hori. Egoerak hoberruntz egin duela ez dago dudarik, denbora gutxian Amazigera eskolan,

³⁸ Honek identitateaz harro sentitu eta bakoitzak ahal duen neurrian, amazigera suspertzeko ahaligina egitera bultzatu ditu, artea, musika, literatura... dela.

unibertsitatean eta hedabideetan txertatu bait da. 2011n ofizialtasuna lortu ostean, ahozko eta aitortu gabeko hizkuntza batetik hizkuntza ofizial idatzi eta nazional bat izatera pasatu zen.

Hala ere, bide luzea dago oraindik egiteke. Marokoar oro egon beharko litzateke konprometituta amazigeraren normalkuntza prozesuan, jatorriz gehienak komunitate honen parte baitira. Baina historikoki interes desberdinak direla medio, errealitate hori ezkutatu eta imazighenen eta arabiarren arteko etsaitasuna sustatzearen ondorioz, amazigeraren normalkuntzan emandako pausuak ez dituzte marokoar guztiek begi onez ikusten. Neurri batean, estatuaren esku dago hori aldatzea.

Horrez gain, hamahiru milioi marokoarren ama hizkuntza izanik estatuaren inplikazioa handiagoa izan beharko litzateke amazigh komunitatearekiko, baina aitortpenak egin zaizkien bakoitzean, gatatzak murriztearren edota kanpo presioei erantzunez izan da. Benetako normalizazio egoera lortzeko estatuak hezkuntza eta hedabideen bitartez aldaera estandarra bultzatu beharko luke, kultura eta komunikabideen garapena finantziatuz. Sustapena aurrera eramateko beste era bat, akademikoei eta ikasleei bekak ematea izango litzateke, amazigera hizkuntza eta literatura ikasteko, arlo horietan ikerketa bultzatuz. Hori ez ezik, amazigh komunitatea Marokoko bizitza publikoan integratzea ahalbidetuko duten lege eta arauak ezarri beharko lirateke, orain arte emandako pausuak ez baitira nahikoa izan.

BIBLIOGRAFIA

- Abouzaid, M. (2011). *Politique linguistique éducative à l'égard de l'amazighe (berbère) au Maroc : des choix sociolinguistiques et didactiques à leur mise en pratique. Linguistique*. Université Stendhal - Grenoble III.
- Ameur, M. et al., (2004). *Initiation à la langue amazighe*. Publications de l'Institut Royal de la Culture Amazighe. Rabat
- Andam, L. (2018) *L'enseignement de l'amazighe au Maroc : aperçu sur la contribution des institutions chargées de son opérationnalisation*, Revue des Études Amazighes, 2, 25-42 Université Ibn Zohr, Agadir.
- Ansar, K. (2013). *The standardisation and dissemination of Amazigh terminology in Morocco*. 9th Conference «Hellenic Language and Terminology».
- Benzakour, F. et al., (2000). *Le français au Maroc: lexique et contacts de langues*. Bruxelles : De Boeck Université.
- Boukhris, F. et al., (2008) *La nouvelle grammaire de l'amazighe*. Institut Royal de la Culture Amazighe.
- Boukous A. (1992) *Notas en torno a la problemática actual de la lengua tamazight*, Revista del Centro Asociado a la UNED de Melilla, 39-43 orr.
- Boukous, A (2005). *Dynamique d'une situation linguistique :Le marché linguistique au Maroc*.
- Boukous, A., Bensoukas, K., (2011). *Revitalizing the Amazigh Language: Stakes, Challenges, and Strategies*. Institut Royal de la Culture Amazighe.
- Boukous, Ahmed. (2009). *Globalization and sociolinguistic stratification in North Africa: The case of Morocco*. Hemen: Cecile.B. Vigourous & Salikoko S. Mufwene, Globalization and language vitality: Perspectives from Africa. Continuum International, 127-141 orr.
- Boumalk, A., (2009) : *Conditions de réussite d'un aménagement efficient de l'amazighe*. Asinag, 3, 53 - 61.
- Bullock, S. (2014). *Language Ideologies in Morocco* Anthropology Department Honors Papers. 11.
- Chaker, S. (2003) *La question berbère dans le Maghreb contemporain : éléments de compréhension et de prospective*, Diplomatie - Magazine, 3, 2003, 75-77 orr.
- Chaker, S., (1989) : Arabisation. Berber Encyclopedia, VI, 834-843.
- Cuny Albert. André Basset, *La langue berbère*. 1929, Paris.
- Daniel, M. C., Ball, A., (2009). *Contextualizing Multilingualism in Morocco*.
- El Fasi, Mohammed 1990 L'Afrique du VIIe au XIe siècle -253.orr
- EL HOUR, R. (2015). *Reflexiones acerca de las dinastías bereberes y lengua bereber en el magreb medieval*. Universidad de Salamanca. 64; 45-57
- Ennaji, M. (1991) Aspects of multilingualism in the Maghreb International Journal Volume Issue 87.
- Ennaji, M. (2005) : *Multilingualism, cultural identity, and education in Morocco*. New York : Springer Science
- Ennaji, M. (2014). *Recognizing the Berber Language in Morocco: A Step for Democratization*. Georgetown Journal of International Affairs, 15(2), 93-99 orr.
- Ennaji, M., (1997). *The sociology of Berber: change and continuity*. International Journal of the Sociology of Language, (123), 23-40 orr.
- Moscoso garcía F. (2002-2003) *Situación lingüística en marruecos: árabe marroquí, bereber, árabe estándar, lenguas europeas*.
- Feliu, L. (2006). *Le Mouvement culturel amazigh (MCA) au Maroc*. L'Année du Maghreb, I, 274 – 285 orr.

- Gomez, Eduardo, Fernando, Diego, Aponte, Guillermo eta Luis, Betancourt (2014). *Metodología para la revisión bibliográfica y la gestión de información de temas científicos, a través de su estructuración y sistematización*. *Dyna*, 81, 158.-163 orr.
- Idhssaine, A. (2020). *Moroccans' Attitudes towards Amazigh Language Teaching: Patterns and Perspectives*. *Applied Linguistics Research Journal*, 4.
- Koucha, A., (2000) *La gestion de la politique linguistique, un espace francophone : l'exemple du Maroc*.
- Laghaout, M., (1995). *L'espace dialectal marocain, sa structure actuelle et son évolution récente*. *Dialectologie et sciences humaines au Maroc*. Publication de la Faculté des Lettres et des Sciences Humaines de Rabat.
- Landau, R. (1956). *Moroccan drama, 1900-1955*. San Francisco: American Academy of Asian Studies
- Llorent-Vedmar, V. (2014). *Identidad cultural bereber y enseñanza del Amazigh*, *Revista Española de Educación Comparada*, 23,53-75 orr.
- Maddy-Weitzman, B. (2011). *The Berber Identity Movement and the Challenge to North African States*, University of Texas Press.
- Miller, S. (2013). *A History of Modern Morocco*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Pennell, C. R. (1991). *Makhzan and Siba in Morocco: an examination of early modern attitudes*.
- Raha, A. *El "Dahir bereber" contra los bereberes* (1993) Aldaba: revista del Centro Asociado a la UNED de Melilla, Nº. 21, , págs. 161-166
- Ramlan, R. (2018). *Language Standarization In General Point of View*. Budapest International Research and Critics Institute (BIRCI-Journal) Humanities and Social Sciences 1:27-33 orr
- Sadiqi, F. (2006) *The Language Situation in Morocco* Published in *Encyclopedia of Language and Linguistics*. Second Edition. Sidi Mohamed Ben Abdellah University, Fes
- Sadiqi, F. (2011). *The Teaching of Amazigh (Berber) in Morocco*, University of Fes, Morocco.
- Shatzmiller, M *The legacy of the Andalusian berbers in the 14th Century Maghreb: its role in the formation of Magrebi historical identity and historiography*. Hemen: M. García-Arenal y M. J. Viguera *Relaciones de la Península Ibérica con el Magreb (siglos XII-XVI)*. Madrid: CSIC-Instituto Hispano-Árabe de Cultura, 1988, 217 orr.
- Soulaimani, D. (2016) *Becoming Amazigh: standardisation, purity, and questions of identity*, *The Journal of North African Studies*, 21:3, 485-500
- Wyrzten, Jonathan. (2011). *Colonial state-building and the negotiation of arab and berber identity in protectorate morocco*. *International Journal of Middle East Studies*, 43(2), 227-249.
- Zouhir, A. (2013). *Language Situation and Conflict in Morocco*.
- Soulaimani, D. (2016). *Writing and rewriting Amazigh/Berber identity: Orthographies and language ideologies*. *Writing Systems Research*, 8(1), 1–16.

WEBGUNEAK

Alfabeto tifinagh: La grafía bereber hoy cooficial en Marruecos. M'Sur. Eskuragarri hemen: <https://msur.es/alfabetos/tifinagh/> Azken kontsulta 2020/08/18.

Berberism & Berberists: Tamazight or Berber Political Movements In North Africa: (d. g.). Eskuragarri hemen <https://www.temehu.com/imazighen/berberism.htm> Azken kontsulta 2020/08/18.

Boukous, A. (2014) *The planning of Standardizing Amazigh language The Moroccan Experience*, IRCAM Eskuragarri hemen: <http://revue.ummtto.dz/index.php/idi/article/viewFile/356/246> Azken kontsulta 2020/08/18.

Enseignement de l'amazigh: Aucune nouveauté pour cette rentrée. (2017, irailak 6). *LesEco.ma*. <https://leseco.ma/enveaute-pour-cette-rentreeseignement-de-l-amazigh-aucune-nouveaute-pour-cette-rentree/> Azken kontsulta 2020/08/18.

Guessous, H. (2018, azaroak 21). *600,000 Primary Students Study Tamazight in 2018-2019 Academic Year*. Morocco World News. Eskuragarri hemen: <https://www.morocoworldnews.com/2018/11/258321/primary-schools-students-tamazight-morocco/> Azken kontsulta 2020/08/18.

Kaplan, R. D. (1982). *In Morocco a Berber Face Hides Beneath an Arab Mask*. The New York Times. Eskuragarri hemen : <https://www.nytimes.com/1982/06/06/weekinreview/in-morocco-a-berber-face-hides-beneath-an-arab-mask.html> Azken kontsulta 2020/08/18.

Leclerc, J.(2020) *L'aménagement linguistique dans le monde: Page d'accueil.*, Eskuragarri hemen: <http://www.axl.cefan.ulaval.ca/index.html> Azken kontsulta 2020/08/18.


Pellat, Ch., Yver, G., Basset, R. and Galand, L., "Berbers", in: *Encyclopaedia of Islam*, Second Edition, Edited by: P. Bearman, Th. Bianquis, C.E. Bosworth, E. van Donzel, W.P. Heinrichs. Eskuragarri hemen http://dx.doi.org/10.1163/1573-3912_islam_COM_0114 Azken kontsulta 2020/08/18.

Saoudi, M. (2014, uztailak 12). *Teaching of the Amazigh Language in Moroccan Universities: Benefits and Challenges*. Morocco World News. Eskuragarri hemen : <https://www.morocoworldnews.com/2014/07/134390/teaching-of-the-amazigh-language-in-moroccan-universities-benefits-and-challenges/> Azken kontsulta 2020/08/18.

Gomez X. Goikoetxea P. (2010) *Testu corpusak eta hizkuntza-plangintza* Senez 39. Eskuragarri hemen: <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/20101014/gomez> Azken kontsulta 2020/08/18

ERANSKINAK

1. Irudia 4: Amazigh hizkuntz barietate desberdinak afrika iparraldean.



Iturria: (Llorent-Vedmar, 2014; 57)

2. Irudia 5: Neo-tifinagh alfabetoa.

| | | | | | | | | | | |
|-----|-------|-------|-------------------|-------|-------|-----|-----|-------|-------------------|-----|
| o | ⵝ | ⵍ | ⵍⵓ | ⵏ | ⵎ | ⵏⵓ | ⵏⵉ | ⵏⵓ | ⵏⵓ | ⵏⵓ |
| ya | yab | yag | yag ^w | yad | yaɖ | yey | yaf | yak | yak ^w | yah |
| a | b | g | g ^w | d | ɖ | e | f | k | k ^w | h |
| [a] | [b/β] | [g/ɟ] | [g ^w] | [d/ð] | [ɖ] | [e] | [f] | [k/ç] | [k ^w] | [h] |
| ⵏ | ⵏⵉ | ⵍ | ⵍⵓ | ⵏ | ⵎ | ⵏⵓ | ⵏⵉ | ⵏⵓ | ⵏⵓ | ⵏⵓ |
| yah | yac | yax | yaq | yi | yaj | yal | yam | yan | yu | yar |
| h | | x | q | i | j | l | m | n | u | r |
| [h] | [ç] | [x] | [q] | [i] | [j] | [l] | [m] | [n] | [u] | [r] |
| ⵏ | ⵏⵉ | ⵏ | ⵏ | ⵏ | ⵏ | ⵏ | ⵏ | ⵏ | ⵏ | ⵏ |
| yar | yagh | yas | yaş | yac | yat | yaɥ | yaw | yay | yaz | yaz |
| r | gh | s | ş | c | t | ɥ | w | y | z | z |
| [r] | [ɣ] | [s] | [ṣ] | [ʃ] | [t/θ] | [ɥ] | [w] | [j] | [z] | [z] |

Alfabeto honek ez du inolako hizkeraren sistema fonikoa erabat adierazten, amazigera estandarra idazteko sortua da. Helburua, Amazigeraren egitura fonikoa pixkanaka bateratze aldera tokian tokiko berezitasunak idazterako orduan neutralizatzen laguntzea da. (Ameur et al. 2004)